

A young man with dark hair and glasses, wearing a black hoodie, is smiling and looking slightly to his left. He is standing in a crowded outdoor setting, possibly a street or a public event. In the background, other people are visible, some holding signs. The overall atmosphere is positive and engaged.

ataria

2019-11-01
1.136. zenbakia
107.6 fm ·
www.ataria.eus

**Ander Congil, klima aldaketa
gelditzeko agente makila astinduz**

TOLOSA

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENENGO
HILA DOAN!

19'9€
/mes



euskaltel

Gure boterea

Jendea ez da ohartzen duen botereaz. *La gent no s'adona del poder que té*. Kataluniako irailaren 11ko Diada eguneko ekitaldi instituzionalean abestu zuten Maria Arnal eta Marcel Bagésen kantua, unerik gorenean, Generalitatearen aurrean, erakundeen mezu argia helarazteko herri-tarrei: ezinbestekoak zarete, ez etsi.

Hilabete geroago, iritsi da esperotako kolpea: buruzagi sozial eta politiko subiranista katalanen aurkako 100 urteko espetxe zigorra, herritarrei euren etorkizuna erreferendum bidez erabakitzea ahalbidetzeagatik. Kolpea ematearekin batera erori zaio Espainiako estatuari demokrataren maskararen azken zatia. Eta biluzi orduko jantzi du, oraingoan ere, indarkeriaren jaka, he-dabideen *photoshop*-ak ondo estaliko duelakoan.

Tsunamiak ezustean harrapatu du, orde-a: aireportu bat, hamaika errepide, presidentearen agenda eta indar polizialen burmuinak blokeatzeraino. Eta herritarren antolatze gaitasunean sinesten duen edonork badaki hau herri erantzun baten hasiera besterik ez dela. Nahi adina eta edozein prezioetako petatxuak jarrita ere, katala-

nen herri botereak lortu du Espainia zatietzinarri pitzadurak zartaraztea.

Oinarritzko eskubide eta askatasunak kriminalizatu dituen epai honek kontzientzia asko astindu ditu, baita Altsasuko gazteen aurkako sententziak ere. Katalunian zein Euskal Herrian masiboki salatu ditugu azken bi asteburutan: hilaren 19an Donostian eta 26an Iruñean zein Bartzelonan. Egoerarik etsigarrienean, bat egin dute bigdegabekeriek sortutako haserrearekin eta aurrera egiteko irmotasunak, milaka pertsonen buru eta bihotzetan.

Herri gisa aurrera egiteko determinazioa erakutsi zuen Donostiako manifestazioan, Gure Eskuren bozeramaile Josu Etxaburuk argi adierazi zuen: «Gure erabakitze gaitasuna gurea da. Eragotzi dezakete, baina ezin digute kendu». Sinesmen horrekin, erreferendumaren aldeko herri ekimena lantzen ari da Gure Esku, datoren urteari begira, alor anitzetako eragileekin batera, geure borroka eta helburuek bat egiten duten norabidean urrats eragin-

korrek egiteko.

Jakin badakigu indarrak batuko bagenu, gure boterea biderkatu egingo litzatekeela, nahiz eta oraindik ez dugun frogatu noraino iritsi gaitzekkeen: herritarrak elkarturik; herritarrak, eragileak... guztiak elkarlanean; eta Euskal Herria eta Herrialde Katalanak bat eginda.

Larrialdi demokratiko honetan, bi aukera besterik ez dauzkagu. Besteen boterea elikatzea, edo guk gurean sinestea. Ez dago erdibidekorik.



JONE AMONARRIZ
KOMUNIKAZIO
TEKNIKARIA

Larrialdi demokratiko honetan, bi aukera besterik ez dauzkagu. Besteen boterea elikatzea, edo guk gurean sinestea. Ez dago erdibidekorik

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
MARINA VARGAS



Zortzi egunez egingo diete jarraipena mugikorre. ATARIA

Mugikorren jarraipena egingo dute zortzi egunez

Espainiako estatistika institutuak herritarrak zein eremutan mugitzen diren jakin nahi du.

Erredakzioa

Telefonoen bidez herritarren mugikortasuna aztertuko duela iragarri du INE Espainiako Estatistika Institutuak. Tolosaldea eremu desberdinetan banatuko dute eta Movistar, Vodafone eta Orange operadoreek parte hartuko dute ikerketan. Hauek bidaltzen duten informazioa «anoni-moa» izango dela azaldu dute.

Zortzi egunez (lau lan egun, azaroaren 18tik 21era; azaroaren 24a, igandea; abenduaren 25a, jai eguna eta

udako bi egun, uztailaren 20a eta abuztuaren 15a) herritarren sakelako telefonoen datuak bilduko dituzte, herritarrak nola eta nora mugitzen diren jakiteko, eta «gune horietan zerbitzu publikoak edo azpiegiturak indartzeko beharra dagoen edo ez aztertze».

El Pais egunkariak zabaldu zuen proiektuaren inguruko berria. INEk esan duenez, informazio horretan akats bat zegoen. «Operadoreek mugikorren posizioak emango zizkigutela esaten zuten. Hori ez da zuzena. Emango digutena kontaketa bat da, une eta zonalde bakoitzean, zenbat telefono dauden. Adibidez, Tolosan 04:00etan zenbat mugikor dauden eta arratsaldean zenbat. Edo Bilboko industrialde batean 04:00etan eta

Legezkotasunarekin zalantza sortu du

Albistearen jakin orduko zalantzak sortu dira proiektuaren legearen barruan ote dagoen, hain justu, datuen babeserako legea urratzen ote duen. Kontsumitzaileen elkarteek ez dute argi, baina, uste dute proiektuak ez duela araurik hausten, «estatistiketarako datuak erabiltzeko aukera legeak jasotzen duelako». Bere aldetik, Datuen Babeserako Espainiako Agentziatik proiektuaren inguruko datu gehiago eskatu dizkiote Espainiako Estatistika Institutuari. Espainiako Estatistika Institututik azaldu-takoaren arabera, euren operazio guztiek «sekretu estatistikoa-ren babesa dute, eta funtzio estatistiko publikoaren legediarekin bat datoz».

16:00etan zenbat dauden. Horrek jendea etxetik lanera nola mugitzen den erakutsiko digu. Operadoreek ez digute telefono baten posizioa emango, baizik eta kontaketa baten datua».

Espainia zonaldean banatuko dutela esan dute INEtik: «Zona bakoitzean gutxienez 5.000 telefono egongo dira. Ondorioz, herri batean telefono gutxiago baldin badaude, ondoko herriarekin elkartuko da. Hirietan, adibidez, zona horiek lauki txikiak izango dira, eta herri txikiak osaturiko eremuetan, berriz, handiagoak». Esan dute-nez, mugikorra norena den ez dute jakingo, eta adina eta sexuaren inguruko daturik ez dutela izango: «Jasoko dugun informazioa anonimizatua iritsiko zaigu».



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Aralarko ganaduzaleak erasotuak sentitu dira



ABEk Ardiki Egunean egin zuen salaketa, oholtzara 20 bat ganaduzale eta artzain igota. ATARIA

Aralarko Baserritar Elkarteak esan du legegintzaldia hasi zenetik ez duela mankomunitateko berririk jaso

Erredakzioa

Aralarko Baserritar Elkarteak hainbat «eraso» jasan dituela salatu du. Aralarko ganaduzaleak ordezkatzeko taldeak dio Enirio-Aralar Mankomunitatea ez dela elkartearekin

harremanetan jarri, nahiz eta bi hilabete eta erdi diren bilera eskaera bat bidali zutela. Mankomunitateak Aholku Batzordea sortu du eta lehen bilera urriaren 9an egin zuten, baina «gure harri-durarako gonbidapenik jaso gabeko aurkezpen baten berri izan genuen, bilera eskaeraren erantzunaren ordezkari», esan dute. EH Bilduren jarrera ere salatu du baserritar taldeak: «EH Bilduk Aralarko larreen antolaketa plana aurkeztu zuen bertan, non lehenengo sektorearekin kontatu gabe eginiko plana

den, gainera datu okerrak erabiliaz. Sektorearen alde dauden hauek, sektorea bera suntsitze bidean jarri dute». Txosten horrek ganaduzaleak gaizkile-tzat hartzen dituela salatu dute. «Mendia kudeatzen duena sektorea bera izanik, egindako onurarik azaldu ez, eta delitugileak bagina bezala aurkeztu gaituzte plan horretan. Ondorioz, sektorea eta elkartea gogoeta sakon batera bultzatu dute». Horiek horrela, euren jardura bermatuko duten «ekintzak» lantzen jarraituko dutela esan dute.

Korrikalaria zara?

Behobia-Donostia
lasterketako
dortsalarekin,
%20ko deskontua
gure produktu guztietan

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 17/5/15 I.L.G.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren
ezugarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.

«EA URTARRILEAN TXERRIAK SARTZEKO AUKERA DUDAN»

Eneritz Maiz Etxarri Amezketa

Amezketako Larramendi baserrian txerriak jarriko ditu Uxue Artolak. Baserrian lanean hasi ahal izateko presatuta lanetan dabil buru-belarri.

Nolatan eman duzu baserri mundura sartzeko pausoa?

Arrazoi bat baino gehiago izan ditut, baina bat eta nagusia, bi haurren ama izanik, amatasuna eta lana uztartzea izan dut helburu. Beti izan dut baserri munduarekin lotura. Baserrian jaio nintzen, eta geroz ere beste baserri batera joan naiz bizitzera. Bertan afizioz ibili gara orain artean lanean, baina orain profesionalki lan proiektu bat martxan jarri eta aurrerapauso hori ematea erabaki dut.

Noiz hasi zinen guzti honi buelta bat eman eta martxan jartzen?

Duela urte pare bat Gaztenek programaren berri izan nuen kasualitatez. Amezketan bertan beste proiektu bat sortu zen txerriekin, eta hori jakin nuenean, buruari buelta batzuk eman nizkion. Gaztenek proiektuak eskaintzen zizkigun aukeren artean, bai niretzat eta baita familiarentzat, onena zena aukeratu eta aurrera egitea erabaki genuen.

Lurrak aldeztu aurretik bazenituen?

Gu nahiz eta baserri batean bizi, baserri hau erosi egin dugu bere lur eta guzti, proiektu honi bideragarritasuna emateko.

Gaztenek proiektua aipatu duzu. Instituzioen aldetik laguntza izan duzu zure proiektua aurrera ateratzeko, ezta?

Gazte nekazari berriak sortzea du helburuen artean proiektuak, eta horretarako baldintza minimoak beteta, beraiek laguntza eskaintzen dizute. Eta laguntza hori erraztasun bat da horrelako proiektu batean sartzeko.

Diru laguntza jaso ahal izateko proiekturen bat aurkeztu beharko zenuen.

Bai. Paperetan bakarrik ia bi urteko prozesu bat da. Proiektu bat aurkeztu behar duzu, eta behar duzun materia-

UXUE ARTOLA BASERRITARRA

Baserriko lanetan hasiko da Uxue Artola amezketarra urte berriarekin batera. Gaztenek proiektuaren laguntzarekin txerriak jarriko ditu basoan, eremu hesitu batean.



ATARIA

la, instalakuntzak eta guztia azaldu behar duzu. Horretan denbora joan egiten da, baina eskakizun bat da eta bete egin behar da.

Baserrian jaioa izanagatik, inoiz burutik pasa zitzazun horrelako zerbait egitearena?

Ez. Egia esan duela urte batzuk ez nuen horrelako gauzarik egitea pentsatu ere egiten. Baina bizitzak bueltak ematen ditu. Inguruko beste baserri hitz egin eta asko animatu ninduten. Ikusita lana egiteaz gain, aldi berean, egunerokotasunean, umeekin uztartzeko aukera ematen didala.

Orain zure lurretara joanez gero zer ikusiko genuke?

Orain momentuan itxiturak egiten ari gara. Txerriak basoan libre ibiliko dira, eta itxitura on batzuk egin beharra daude. Horrek lan dezente eskatzen digu. Txabolak eta jantokiak ere jarri

behar dizkiegu, eta tokia prestatzen ari gara.

Noizko aurreikusten duzu guztia prest izatea?

Gutxi gorabehera urtarrilean dena prest izatea espero dut, eta ea urtarrilean txerriak sartzeko aukera izaten dudan.

Txerriak haztea izango da zure lana?

Gure proiektua nagusiki Txerrizaleok Elkartarekin elkarlanean egin dugu, Eusko Labelaren zigilupean. Txerrikumeak elkartek berak ekarriko dizkigu, eta gero, behin basoan hazi ostean, Txerrizaleok elkarteari salduko dizkiogu. Txerri hazleok baserri guztietan prozesu bera jarraitzen dugu, elikadura bera izan dezaten, eta zapo eta kalitate bera lortzeko. Guk salmenta beraiegi egingo diegu, eta beraiek arduratzen dira produktu hori komertzializatzeaz.

Horrekin salmenta ziurtatua dago.

Guk hazte prozesua egiten dugu. Txerrikumeak 22 bat kilorekin etorriko zaizkigu, eta guk 140-150 kilora bitarte hazi beharko ditugu.

Zenbat txerri izango dituzu urtean, gutxi gorabehera?

Txerriaren gizentze prozesua gutxi gorabehera bost bat hilabetekoa izango da. Gero elkartea berak eramango ditu. Jarraian, hilabeteko epealdia izango dut tokia txukundu eta garbituta jartzeko, eta berriz ere, txerriak ekarriko dizkirate. Urtean bi txanda sartuko ditut, gutxi gorabehera 140 bat txerrikoak.

Bertakoa eta garaian garaikoa jatea ezinbestekoa dela esan ohi da, eta bada lana gizartera mezu hori zabaltzen. Gaur egun uste duzu baloratzeko dela baserrietan egiten den lana?

Baloratu, baloratu... gaur egun uste dut zenbaitxoz kontzientzia hartzen hasi direla. Produktu horiek normalean garestiagoak izaten dira, baina jakina da; lana eta produktuaren kalitatea ezberdinak dira. Azkenean elkarteen proiektua bide horretatik doa, hau da, txerriaren kalitatea eta haragia ezberdinak izateko lan egiten du.

Kalitate oneko produktuak izatea ziurtatuko du.

Bai, hori da. Gu Eusko Labeleko txerri hazleak izango gara. Horrek izen bat ematen du.

Instituzioen aldetik laguntza jaso duzu lanbidea aurrera eramateko. Uste duzu lehen sektorerako bideratutako laguntzak nahikoa direla?

Nahikoa, nahikoa... azken batean honelako proiektu bat martxan jartzeak dezenteko kostua du. Instituzioen aldetik hori bultzatu nahian edo ari dira. Bai hemen edota goragotik, Europatik, hori bultzada bat emateko laguntzak jartzen dituzte. Nahikoa ez dakit, beti daude oztopoak, baina ilusioarekin eta gogoarekin hartuta zerbait egiteko asmoarekin ari gara.

Behin txerriak jarrita irudikatzen duzu zure egunerokoa nolakoa izango den?

Hemen inguruko beste baserrietan ikusita, eta azken batean dena prest nola edukiko duten, bai ura, pentsa, ... bertan izango dute. Azkenean higie-ne pausu batzuk jarraitzea, txerriei kontrola egitea izango da, baina egunerokoan ordu bat edo biko lanarekin, printzipioz nahikoa izango litzateke. Hortik aurrera, bakoitzak inplikatu nahi duenaren arabera izango da.

Egunerokoan lan ordu asko ez dituzte eskatzen.

Proiektu honi heltzeko nire arrazoietako bat hori izan da. Umeak eta lana uztartzeko aukera ematen dit, eta alde horretatik, erraztasun bat ematen du. Ez da beste ustategi batzuekin bezala, ardiekin edo izan daitekeen moduan.

Zer esan dizu inguruko jendeak?

Batzuk harrituta geratu dira, beste batzuk ideia ona dela eta aurrera jarraitzeko, denetatik pixka bat. Jendeak iritzi asko ditu, animatu naute, baina beste batzuk beste zerbait egin izan banu askoz behea litzatekela esan didate. Baina norberak

hartzen duen erabaki bat da, eta hori eutsi behar.

Zer esango zenioke zu bezala ideia buruan izan, baina oraindik pausoa ematera ausartu ez den horri?

Ez bazara saiatzen ez dela ezer lortzen. Gustatu egin behar zaizu edo mundu hau pixka bat ezagutu egin behar duzu nolakoa den. Oztopoak beti daude, baina nik uste dut beste lanpostu batzuetan ere beti izaten direla gorabeherak. Ilusioz hartu, eta gustuko badu aurrera egiteko esango nioke.

Animalia moduan txerriarekin aldez aurretik izan duzu harremanik?

Ez. Egia esan jaiotetxean beti behiak edo ardiak ikusi izan ditut. Orain behorak eta baditugu, baina txerriei ez dut kontakturik izan, eta hainbesteko talde batekin gutxiago. Gauza minimo batzuk ezagututa, egunerokotasunean ikasten joango gara, eta saiatuko gara.

Umeak aipatu dituzu. Gustura daude hemendik aurrera txerriak familiako kide izango direlako?

Egia esan beraiek ilusioarekin daude. Txikiak dira oraindik, baina proiektu guztian zehar beraiek ere gurekin dabiltza. Orain prestakuntza lanetan edota beste instalazio batzuk ikustera joan garenean ere.



ATARIA IRRATIAN
hamabostean
behin Baserritik
saioa entzungai:
www.ataria.eus

Hilberriak eta urteurrenak

ATARIA jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Francisco Javier
Leiza Alberdi
Jabito



Hire irripak nekaezinarenean
oroitzapena gelditzen zaiguk

No Soluxion-eko hire lagunak

ESKUALDEKO BOST GAZTAGILE SARITU DITUZTE

Amezketan, Asteasu, Berastegi, Orendain eta Tolosako bost gaztandegi saritu dituzte Munduko Gazta Lehiaketan; denera 3.804 gazta lehiatu dira eta sari guztietatik hamar domina iritsi dira eskualdera

Irati Saizar Artola

Urriaren 19an eta 20an ospatu zen World Cheese Awards lehiaketa, munduko gazta txapelketa garrantzitsuena, hogeita hamabigarrenez. Aurten, Italiako Bergamo hiriak hartu du txapelketa eta, denera, 42 herrialdetako 3.804 gazta aritu dira

lehian; tartean izan dira eskualdeko hainbat gaztandegi.

Aurtengo edizioan irabazlea River Blue izan da, Oregongo Rogue Creamery egina: behi esnearekin egindako gazta urdin bat, organikoa. Lehen dabizikoz irabazi du Munduko Gazta Lehiaketa Ameriketako Estatu Batuetako gazta batek.

Irabazle nagusiaz gain, Tolosaldeko

bost gaztandegi izan dira sarituak: Amezketako Larte, Asteasuko Goine, Berastegiko Gazpio, Orendaingo Zelaieta eta Tolosako Martin Txiki.

Larte

Larte gaztandegiko Arantxa Garaiburu berastegiarrak Amezketan ekoizten du gazta. 2008an hasi zen gazta ekoizten eta ordutik sari ugari lortutakoa da. Besteak beste, txapelketa horretarako Super Gold edo urrezko sari gorena irabazi zuen 2010ean. Aurtengo edizioan bi domina eskuratu ditu, zilarrezkoa bata eta brontzezkoa bestea. Sariak «gustura» hartu ditu Garaiburuk: «Saria irabazteak ezagutzera eramaten gaitu eta hori ona da». Txapelketara lau gazta aurkeztu zituen: Idiazabal ketua eta naturala, gazta urdina eta gazta zapala deiturikoa.

Goine

Asteasuko Goine gaztandegiak ere maiz parte hartu du mundu mailako txapelketan. 11 urte daramatzate gaztagintzan buru-belarri lanean, eta aurtengo txapelketan domina bat eskuratu dute: brontzezkoa. Iaz, urrea eskuratuak dira heldutako ardi gaztagatik eta brontzea lortu zuten jatorrizko izendapenaren sailean.

Gazpio

Jose Inazio Ugartemendia berastegiarraren Gazpio gaztak lortu ditu eskualdeko domina gehien: urrezko bat, bi zilarrezko eta brontzezko bat. Bost gazta aurkeztu dituzte eta horietatik lauk lortu dute saria: «Oso pozik gaude, izan ere, gazta ekoizten lau urte daramatzagu oraindik, eta umiltasunez lanean jarraitzeko ilusioa eman digu», esan du Ugartemendiak. Urtean bi tona baino gutxiago ekoizten duen



Larteko Arantxa Garaiburu. M. IRAOLA



Goineko Joseba Otegi. I. GARCIA



Gazpioko Jose Inazio Ugartemendia. I. G.



Zelaieta baserriko artzainak. I. G.



Martin Txikiko Pedro Zuzuarregi artzaina. I. G.

gazta onduan lortu dute urrezko domina; zilar bat, berriz, gazta onduan, eta beste zilarra Idiazabal kategorian; brontzezkoa jatorrizko izendapenaren sailean jaso dute.

Zelaieta

Orendaingo Zelaieta baserrikoek iaz ere lortu zituzten bi domina, eta aurten ere sari kopuru bera irabazi dute: bi brontzezko domina. Lau urte darmatzate sariketan parte hartzen, eta «nahiz eta zail samar ikusi, beti izaten dugu tokatzeko ilusioa». Neguan zehar egindako lanaren «saria edo emaitza» dela dio Maider Murua gaztagileak. Denera lau gazta aurkeztu dituzte aurtengo edizioan: bi mendiko, Aralarkoak, eta beste bi apirilean egindakoak. Oraindik, ordea, ez dakite zein gazta izan diren sarituak.

Era berean, pasa den asteburuan ospatu zuten Ardiak Eguna, Zaldibian, eta Aralarko Gazta Txapelketako lehen saria irabazi zuen Zelaietak. Sari horrekin ere, «pozik» agertu da Murua.

Martin Txiki

Tolosako Montezkue auzoko Martin Txiki brontzezko domina bat eskuratu du aurten. 2007. urteaz geroztik, urtero irabazi dute sariren bat lehiaketa honetan, urte batean izan ezik. «Beti da garrantzitsua sari bat irabaztea», dio Tere Olano gaztagileak. Azken urteetan bezala, aurten ere, hiru gazta aurkeztu dituzte: gazta gogor bat, erdi mailakoa, bestea, eta jatorrizko izendapeneko, hirugarrena. Hogei urte darmatzate gaztagintzan, eta, egun, gazta guztiak eskuz egiten ditu Olano: «Teknologiarik oraingoz ez dut sartu, gutxienetakoa izango naiz agian».

Hilabeteko greba deialdia, Gipuzkoako egoitzetan

Atzo egin zuten batzarra langile eta langileen ordezkariak; azaroaren 11tik abenduaren 11ra greba egitea erabaki dute

Erredakzioa

Iazko irailean hasi ziren mobilizazioekin Gipuzkoako egoitza eta egunko zentroetan. Guztira 118 greba egun egin dituzte, eta oraingo 31ekin, 149ra iritsiko dira. Tolosako eta Villabonako egoitzetan eragin zuzena izango du hilabeteko lanuzteak.

Langileek prozesu osoan zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duen «arduragabekeria» azpimarratu nahi izan dute: «Zoritxarrez, beste prozesu luze eta gogor batzuetatik ikasi beharrean, Bizkaikoa kasu, non 379 greba egun batu ziren, badirudi hemen ere gauza bera gertatzea nahi dutela».

Negoiazio-mahaiak gehiagorako ez duela ematen azaldu dute zentroetako langileek, «eta denok dakigu akordioaren finantzaketa aldundiatik etorri behar dela. Beraz, eztabaida dialektikotatik denbora gehiago ez galtzeko, eta gatazka konpontzeko eskatzen diegu».

Azaroaren 28rako deituta dagoen bilera, negoziatzeko borondate argiarekin joango dela berretsi du ELAk. Greba honetan, sektoreko langileen lan-baldintzak hobetzeaz gain, zerbitzuaren kalitatea bera eta nagusientzako arreta hobetu nahi direla azpimarratu dute.

Elduainen aurkitu dute galduta zegoen gizonezkoa

Zauri larririk gabe topatu dute 75 urteko tolosarra bere kotxe barruan; familiak ez zuen bere berririk asteazkenetik

A. Imaz

Nafarroako gobernua zabaldu duen informazioaren arabera, atzo goizean erreskatatu zuten gizonezkoa, 75 urteko tolosarra da. Aizarotz (Basaburua) inguruan ari ziren bilaketa lanak egiten. Asteazken gauean hasi zituzten lan horiek, senitarteak abisua pasa ondoren. Hauen arabera, Aizarotz ingurura joana zen perretxiko bila.

Arratsalde erdian senideei deitu zien gizonezkoak, mendian despistatu eta berandutu egingo zela jakinarazteko. Etxeratzen ez zela ikusita, familiak SOS Nafarroara deitu zuen. Gau osoan zehar bilaketa lanetan aritu ziren. Bizilagun batek, ordea, desagertua 19:30ak inguruan bere furgonetan ikusi zuela eta, mendiko bilaketa amaitutzat eman zuten eta errepidean hasi zuten bilaketa, istripua hipotesi nagusitzat hartuta. Ertzaintza eta Tolosako suhiltzaileak gehitu ziren lan horretara, eta 11:00etan aurkitu zuten tolosarra, Elduainen. Kontziente zegoen gizonezkoa, eta ez zegoen harrapatutik. Telefono mugikorrean kobeturarik ez zuela esan die bilaketa lanetan zebiltzanei. Erreskatatua anbulantzia eraman zuten Asuncion Klinikara, zauri ez larriekin.



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu
DELTECO GIPUZKOA BASKET -
B THE TRAVEL BRAND
MALLORCA
partida ikusteko

• Aintzane Artola (Tolosa)

Azaroak 3, 12:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Ataria jarriko da harremanetan

Atarikideentzat **disco bat** daukagu
50.



Tolosako Abesbatza
lehiaketako
DISKO KAXA berezia

• Lourdes Legarra
(Ibarra)



Aurten ere ihes egin dio txapelak Gipuzkoari bote luze txapelketan

Bizkaiak 7-3 irabazi dio Gipuzkoa 2 taldeari; eskualdeko hainbat pilotarik parte hartu dute bertan

Erredakzioa

Aurten ere ezinezkoa izan da. Gipuzkoa 2 taldeak ezin izan du IV. Bote Luzeko Euskal Herriko Txapelketako finala irabazi, eta Bizkaiak jantzi du berriro txapela.

Bizkaitarrek hasieratik utzi zuten argi faborito zirela. Lehendabiziko jokoa estu hartu zuten bi taldeek, baina lau berdinketa egin eta gero azkenean jokoa Bizkaiarentzat izan zen. Eta hortik aurrera nagusitasunez jardun zuten bizkaitarrek, eta 5-0ko tarte ireki zuten.

Partidaren azken txanpan Gipuzkoa 2 taldeak bere maila erakutsi zuen,



Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketaren sari banaketa. ATARIA

eta 5-2 jarri zen markagailuan. Baina araudiak ezarritako 75 minutuak bete, bizkaitarren aldeko 7-3ko emaitzarekin bukatu zen finala.

Gipuzkoa 2 taldean eskualdeko

hainbat pilotari izan dira: Asteasuko Jon Urbietta eta Gaizka Iruretagoiena, eta Larraulgo Andoni Urbietta, Ibai Urbietta, Iñaki Esnal, Julen Jauregi eta Adrian Bengoa.

Irati Larrañaga eta Ioana Alijostes tolosarrak, Donostiara trainerura

San Juan taldean aritutako hainbat arraunlari elkartuko dira datorren denboraldirako Donostiara traineruan

Erredakzioa

San Juan talde historikoan taldeki izan ziren bederatzirako arraunlari berriz elkartuko dira, tartean Irati Larrañaga eta Ioana Alijostes, Donostiara traineruan. Aurtengo denboraldian ez dira arraunean aritu bi tolosarrak. Donostiara taldean Olatz Lopez tolosarra eta Naroa Urkola anoetarra daude. San Juan talde historikoan aritu zen Nerea Perez tolosarra aurten Hondarribia traineruan aritu da.

Beste aldaketa edo fitxaketa batzuk izan dira arraunaren munduan. Endi-



Alijostes, Larrañaga eta Perez, San Juanekin 2018ko Kontxako Bandera irabazi ondoren. J. ARTUTXA

ka Lopez tolosarra Hondarribia trainerutik Donostiara pasako da, Eneko Zabala adunarra Kaikutik Ondarroara,

eta San Pedron eta Getarian aritu zen Mikel Lasa tolosarra ere Ondarroan ariko da.

Kirol Agenda

Antton Pebet txapelketako pilotariak, zehaztuta

Abenduaren 5ean hasiko da txapelketa, final zortzirenetako kanporaketekin, eta finala abenduaren 28an izango da

Erredakzioa Amasa-Villabona

Gaianean da beste urte betez Behar Zanak pilotari zenaren, Antton Pebeten, omenez antolatzen duten eskuz binakako txapelketa, nagusien mailakoa. Aurtengoan ere Euskal Herriko afizionatu mailako pilotari onenek jokatu dute eta lehia abenduaren 5ean hasiko da eta abenduaren 28an jokatu dute final handia. Hamar urte bete ziren abuztuan Antton Pebet

hil zenetik eta bere omenez antolatzen den txapelketaren lehen ediziotik. Bi urtetan txapelketa ezin izan zen antolatu eta ondorioz aurtengoa izango da zortzigarren ekitaldia.

Villabonako Santio txapelketan irabazi zuten Gelis-Aranguren bikoteak zuzeneko plaza lortu zuen eta beste pilotariak beren maila bikainagatik hautatuak izan dira. Horietaz gain, Behar Zana taldeko 3 pilotarik parte hartuko dute aurtengoan. Batetik Urbiet

anaiek, Xabi eta Jonek elkarrekin jokatu dute, eta bestetik, Antton Pebet zenaren pilota bikote zen Lizasok ere jokatu du, heriotzaren 10. urteurrenean. Ondorengoak izango dira, beraz, final-zortzirenetan lehiari sartuko diren bikoteak: Gelis-Aranguren, Arrieta-Irazustabarrena, E. Labaka-Arbizu, Mata-Urruzola, Lizaso-Zezeaga, I. Egiguren-Telletxea, Urbietana, eta Lerenari. Final-laurdenetan zain egongo direnak hauek izango dira: Santxo-I. Elizegi, Exposito-Mariekurrena, Zubizarreta-Alduntzin eta Espinal-Lizeaga.

Egutegia hauxe izango da: final zortzirenak abenduaren 5ean eta 6an jokatu dira; final-laurdenak, abenduaren 14an eta 15ean; finalerdiak abenduaren 20an eta finala abenduaren 28an.

TALDE NAGUSIAK

Kukuyaga Etxebarri LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Azaroak 1, ostirala, 17:15ean.
Etxebarriko udal kiroldegian.

LASKORAIN

Juventud del Circulo

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Azaroak 2, larunbata, 16:00etan.
Tolosako Usabal kiroldegian.

TOLOSA CF

Arratia

Futbola. 1. Maila Nazionala.
Azaroak 2, larunbata, 16:30ean.
Tolosako Berazubi futbol zelaian.

Pasaia

TOLOSA CF

Futbola. Hirugarren Maila. Azaroak 1, ostirala, 16:30ean. Errenteriako Jesus Maria Zamora futbol zelaian.

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Urduliz Eskubaloia

Eskubaloia. 1. Maila Nazionala.
Azaroak 2, larunbata, 18:30ean.
Tolosako Usabal kiroldegian.

OSTIRALA AZAROAK 1

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

11:30. Futbola. Erregionaleko lehen maila, Intxurre vs. Euskalduna.

AMASA-VILLABONA

ARRATZAIN FUTBOL ZELAIA

11:30. Futbola. Erregionaleko preferente maila, Billabona vs. Ikasberri.

TOLOSA

BEOTIBAR FRONTOIA

17:00. Pilota jaialdia. Hiru partida: binaka, Elordi-Tolosa eta Zabala-Martija; binaka, Elezkano II.a-Bikuña eta Salaberria-Rezusta; Promozioko Lau eta Erdiko hirugarren eta laugarren postua, Agirre-Egiguren V.a.

BERAZUBI FUTBOL ZELAIA

16:30. Futbola. Jubenilen nazional maila, mutilak. Tolosa CF vs. Hernani.

LARUNBATA AZAROAK 2

TOLOSA

USABALGO FUTBOL ZELAIA

15:30. Futbola. Erregionaleko preferente maila, Tolosa B vs. Orioko.

IGANDEA AZAROAK 3

TOLOSA

USABALGO FUTBOL ZELAIA

15:30. Futbola. Kadeteen ohorezko maila, neskak. Tolosa vs. Zarautz.

ZIZURKIL

ELBARRENA FUTBOL ZELAIA

17:15. Futbola. Kadeteen Euskal Liga, mutilak. Danena vs. Tolosa.

BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA	
Ostirala, 1 - 09:30 Infantil txiki maila BILLABONA FKE - LAZKAO K.E.	
Ostirala, 1 - 12:00 Preferente maila BILLABONA FKE - IKASBERRI K.E.	
Larunbata, 2 - 16:30 Jubenilen 1. maila BILLABONA FKE - OSTADAR S.K.T.	
Igandea, 3 - 10:30 Ohorezko kadete maila BILLABONA FKE - KOSTKAS K.E.	



Route 66 moto gainean

Oraingo honetan moto gainean joango gara Chicagotik Los Angelesera, zer iruditzen zaizue?

Esperientzia polit bat, askotan esan izan didate ibilbide hori moton egitea mundiala dela, ezta?

Guztiz. Route 66 historikoak 3.939 kilometro hartzen ditu.

Bai, egia esan Chicagotik hasi ginen. Chicago hiri oso polita da, Ameriketako Estatu Batuetako hirugarren hiri handiena da, kultur aniztasun handia du eta merezi du bertan egun batzuk igarotzeak.

Ibilbide hau etapa desberdinetan egin daiteke, egun bakoitzean 250-300 kilometro eginda primerakoa da.

Chicagotik Springfieldera joan ginen, gasolinera mitikoak ikusten eta atse den hartuz *Polk a do drive in* jatetxean, filmetan ikusten den jatetxe bat da, sartu eta country musika entzuten zen, fast food janaria dastatu genuen bertan.

Missouritik Oklahoma Cityra, tartean Gay Paritaren gasolinde-

gi mitikoa ikusirik, Gary Turnerrena, eta Kansasetik Oklahoma estaturaino joan daiteke. Inguru honetan Cars filmea inspiratuta dago, kotxe zaharrak errepide ikusgarri hauen alboetan ikusi daitezke.

Amarillo hirira bidean, Arcadia hiriari, John Hargroveren etxarekin topatu gaitezke, ibilbidearen ikur den 66ko plakaz betea, Herbie kotxe famatua han dago eta baita ibilbideko geziak ere. Bere etxean sartu ginen, museo bat da, eta gustura asko berarekin kafetxo bat hartu genuen.

Amarillotik Santa Fera joaten Cadillac Ranchekin topo egiten duzu, bertan 12 cadillac erdi lurperatuta daude eta bertan margotu daiteke nahi izanez gero, ikustekoa da.

Albuquerqueko globo jaialdia ikusi genuen, munduko garrantzisuena izaten da, ikusgarria!

Arizona estatuan sartuz Arroila Handia dago, paraje hauetan daukazun sentsazioa ikaragarria da. Merezi du helikoptero batean igo

eta bertatik Arroila Handia ikuskatzea.

Las Vegas mitikoa ikustera ere desbideratu ginen eta moto gainean Las Vegasera sartzeak ikaragarritzko zirrara sortu zigun, filmetan bezalakoxea da, argi eta biziz josia.

Bukatzeko, Kalifornia estatuan sartu ginen, Santa Monica kai famatuan. Hango ilunabarrak bizitu beharrezko zerbait dira!

Beti esaten dudana bezala... Ea nor animatzen den orain eta bueltan kontatzen digun!



MYRIAM GURRUTXAGA ETA ENARA ETXEBERRIA



AINTZANE ARTOLA

Tortitak ahuakate eta perretxikoekin

13

3o minututan afari goxo bat izan dezakegu errezeta honekin. Udazken loreekin prestaturikoa, hain zuzen ere.

Perretxikoak erabiliko ditugu, nire kasuan, shiitakeak erabili ditut. Urte guztian erabilgarri ditugunak direlako.

Tortitak

Tortitak egiteko gari irina, gatza eta legamia nahastuko ditugu. Legamia karratutxoan baldin badugu, eskuekin desegiten joango gara, eta gatza eta irinarekin nahastuko dugu eta gure oreagigite hasiko gara. Horretarako ur epel edo ia beroa botatzen joango gara, pixkanaka. Nahastuko dugu oreak masa itxura hartzen duen arte. Masa hau eskuetan itsaskor samarra izan behar da, baina moldagarria dena –plastilina modukoa–. Bolatxoak egingo ditugu –3 zentimetrokoak, gutxi gorabehera–. Film batekin bildu eta

bere horretan utziko ditugu, 30 bat minutuz, arnas hartuz.

Betegarria

Lehenik perretxikoak garbituko ditugu eta laminatan moztuko ditugu. Ondoren, baratzuria zuritu eta txiki-txiki moztuko dugu. Zartagin batean olioare berotzen jarriko dugu eta baratzuria eta perretxikoak botako ditugu. Hamar bat minutuz, gorritu arte eta perretxikoak samurrak egon arte. Gatza eta limoi zukua gehituko diogu. Su baxuan utziko dugu, berotasunean mantentzeko.

Ahuakate krema

Ahuakatea zuritu, moztu eta irabiagailuan sartuko dugu, limoi zorrotada eta gatz pixka batekin.

Dena bat

Tortitak egiteko, hasieran prestatutako masa kolpatuko dugu, zabaldu dadin –taloekin bezala–. Plantxa

batean berotuko ditugu, bi aldeetatik. Ahuakate kremarekin bustiko ditugu ondoren, eta barruan perretxikoak sartuko ditugu. Azkenik, puntu kurrusagarria emateko arto frijitua gehituko diogu, mortero batekin txikituz gero, zoragarria litzateke. Dena bildu eta jateko prest!

OSAGARRIAK

TORTITAKEGITEKO

- 250 g. gari irina.
- 50 ml. oliba olio.
- 150 ml. ur epela.
- Gatza.
- 2 g. legami.

BARRUKOA

- Oliba olio.
- 200 gr. perretxiko –shiitakeak izan daitezke–.
- Baratzuria.
- Limoia.
- Perrexila.
- Ahuakatea.
- Arto frijitua.



AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA



«EZ DUGU ENTZUTERIK ALDAKETAK ESKAT.

ANDER CONGIL

FRIDAYS FOR FUTURE MUGIMENDUKO KIDEA

Biologia eta Ingurumen Zientzietako Graduako ikasketak burutzen ari da tolosarra, Gironako Unibertsitatean. Azken urtea, ordea, Granadan egingo du. Horrez gain, denborarik gehiena ekologismoaren aldeko lanari eskaintzen dio.

Mikel Iraola

Duela hilabete Ander Congil (Tolosa, 1997) ez zegoen kazetarien galderei erantzutera ohituta. *Fridays for Future* mugimenduarekin bat egin zutenetik, ordea, bizitza aldatu zaiola dio: elkarriketak, hitzal-diak, bidaiak...

Greta Thunberg suediar gazteak klima aldaketaren aurka abiatutako mugimenduari jarraipena eman zion, Gironako beste bi lagunekin batera. Mugimendua sustatu zuten lehenak izan ziren iberiar penintsulan. Hiru lagunek elkarretaratzea zena, olatu bihurtu zen denbora gutxian. Eta, ordutik, han-hemenka ibili dira, aldaketarako dei eginez eta atxikimenduak bilduz. Izan ere, denbora honetan bada aldatu ez denik: planetak bizi duen larrialdi klimatikoa. Horren aurka eragin beharra dagoela ohartarazi du.

Nondik datorkizu naturarekiko grina?

Txikitatik izan naiz naturazale. Mendira joatea eta animaliak ikustea gustatzen zitzaion mutiko horietakoa nintzen. Dokumentalak ikusiz ere denbora asko pasatakoa naiz. Beti iruditu zait bitxia eta harrigarria naturaren funtzionamendua. Eta zaletasun eta jakin-min horrek bultzatuta, biologia eta ingurumen zientzietako ikasketak egitea erabaki nuen.

Nolakoa da naturarekin duzun lotura?

Gizaki guztiok naturarekiko menpekotasuna dugu. Naturak ahalbidetzen digu dena; bestela ezingo genuke hemen egon. *Eman eta jaso, jaso eta eman* erlazio horietako bat dela esango nuke. Niri asko ematen dit, eta nik ere nire denbora eskaintzen diot ikasketekin, bere inguruan gehia-



Mugimenduaren lehenengo asteko taldeko argazkia:
Nuria, Roger, Ander Congil, Lucas, Mar eta Jordi. ATARIA

go jakiteko eta ezagutza horiekin bere zaintzan laguntzen saiatzeko. Baita naturak dituen arazoak gizarteratuz eta hitza besteei pasaz.

Zein irakaspen eman dizkizu naturak?

Natura oso sistema konplexua da, eta era berean delikatu. Arazo edo akats txiki batek ondorio larriak sor ditzake han edo hemen. Niri irakatsi didana da sistema konplexu hori zaindu eta babestu egin behar dela, gizakiak gizakien arteko erlazioak zaindu behar dituen bezala. Alde batetik tira egin eta oreka puskatuz gero, arazoak sortzen ditugula jabetu behar gara.

Nola azalduko zenuke, hitz gutxitan, naturak bizi duen egoera?

Gu gara historian, lehen aldiz, lurra hankaz gora jartzen ari garenak; atzera bueltarik ez duen egoera batera daramagu. Desagerpen handiak gertatu izan dira fenomeno naturalen ondorioz. Baina oraingoan, gure jardueraren ondorioz, eta inoiz ikusi ez den abiaduran, ondorio larriak pairatzen ari da ingurumena. Etorkizunean bizitzan jarraitu nahi badugu, zerbait konpondu beharra dugu, eta oso garrantzitsua da zerbait hori egiten hastea ez badugu egoerak okerragora egiterik nahi.

Larrialdi egoerara pasa gara, zabaldu diren mezuen arabera. Zein da aldea?

Hamarkadak daramatzagu larrialdi egoeran. Kontua da politikoki ez direla erabakiak hartu. Alerta hitza erabili

izan dute egoera arintzeko, baina zientzialariak aspalditik ari dira egoera larri honen berri ematen, eta denbora agortzen ari zaigula ohartarazten. Aitzakiak bukatu dira, aldatetaren aldeko mugimenduak sortu eta gauzak ozen eta garbi esatearekin batera. Hortaz, orain arteko larrialdi egoera beraren aurrean gaude: ezberdintasun nagusia hitzetan dago, ez horrenbeste ingurumenaren egoeran.

Nola iritsi gara puntu honetara?

Etengabe kontsumitu eta haztean oinarritutako ekonomiak behar faltuak sortu dizkigu. Dena nahi dugu, eta horrek naturarengandik aldendu egin gaitu. Arazoa hor dago. Gizakiak uste izan du guztiaren jabe izan eta dena kontrolatzeko gai dela. Eta ikuspegi hori okerra da. Dena ez dago gure menpe. Oreka puskatu egin da, eta orain konturatzen ari gara gure ahalmenen gainetik bizitzeak zer nolako ondorioak sortu dituen. Hori bai, eraiki dugun erosotasunarekin amaitzea eta eguneroko bizitzan egiten ditugun gauza askori uko egitea oso zaila da.

Eredu horrek sortutako ezberdintasun sozialak ere nabariak dira. Baina krisi klimatikoak egoera areagotu lezake, gainera.

Gizartearen jokabide honek, natura suntsitzearekin batera, ondorio gehiago ditu. Lurra ez da hain emankorra izango, elikagaiak ekoizteko aukera gutxiago egongo da, eta ondorioz, produktu askoren prezioak igo egingo dira. Eta berdin sendagaiekin. Hori gertatuz gero, pobre eta



Gironan, Generalitatean, taldean egindako ekintza bat. ATARIA

aberatsen arteko tartea gehiago zabalduko da. Itsasoaren mailagatik edo katastrofe naturalengatik ere jende askok bere herriak utzi beharko ditu.

Itsasoa aipatu duzu. Ur azpian asko ibilitakoa zara, tartean urpekaritza eskola batean irakasle modura. Zelakoa da itsas azpiko egoera?

Oso kaltetua dago. Egunerokoan ikusten ez diren gauza asko ikusteko aukera ematen dizu urpekarari izateak. Baina nahiz eta jendearen bista-koak ez izan, zabor asko ateratzen da uretatik: latak, plastikoak... Garbiketetan parte hartu izan dut; azkena, joan den asteburuan, Granadako kostan.

Ondorio horiez guztiez jabetuta, zuk eta zure lagun batzuk, 'Fridays for Future' ekimenarekin bat egitea erabaki zenuten urtarrilean. Zer dela eta?

Hilabeteak generamatzen Greta Thunberg-en bideoak

«Hamarkadak daramatzagu larrialdi egoeran. Kontua da politikoki ez direla erabakiak hartu»

ikusten. Berak sortutako mugimendua European zehar nola zabaldu zen ikusi, eta pentsatu genuen jarraipena eman behar geniola hemen [Girona].

Ostiral hartan, urtarilaren 18an, Generalitatearen egoitzaren kanpoan eseri ginen hiru lagun, pare bat pankarta hartuta. Beste bi lagun gehitu ziren gero, eta mugimenduaren berri zuten beste bik ere adierazi ziguten babesak.

Gogoan duzu zer jarri zenuten pankarta haietan?

Bata katalanez zegoen *Vaga pel clima* (Greba, klimagatik); bestea, ingelesez *Start working to stop the climate change* (Hasi klima aldaketa gelditze-ko lanean). Pankarta haiek lehenengoak izan ziren, baina oraindik ere erabiltzen ditugu.

Hori lehen eguna izan zen. Gerora nolako eboluzioa izan du mugimenduak?

Lehen asteetan gutxi izan ginen. Gero sare sozialak sortzea



erabaki genuen, eta orduan hasi zen gorakada. Espainia osora hedatu zen, eta beste lurralde batzuetatik deika hasi zitzaizkigun mugimenduarekin bat egin nahi zutela esateko. Martxoaren 15ean 50.000 pertsona irten ziren kalera espainiar estatu osoan.

Horrelako harrerarik izango zenutela uste al zenuten hasiera hartan?

Etorkizunera begirako ikuspegiak gabe hasi ginen, baina neska batek zenbat pertsona mobilizatu zituen ikusiz. Orduan, bagenekien ez ginela gu bakarrik. Greta Thunberg-ek hasitako bidera batu ginen, eta ordutik esponentzialki hazi da. Eta orain ere gehiagora doa, historikoa da.

Sare sozialetan oinarritu zarete hazkunde hori lortzeko?

Bai, guztiz. Munduko punta batetik bestera pertsonak konektatzea ahalbidetu digu, eta hori lagungarria izan da mugimendua ezagutarazteko orduan.

Dena den, klima aldaketaren aurka teknologia bera erabiltzea hein batean paradoxikoa ere bada, ezta?

Teknologiaren garapenaren guztia ez da txarra. Garbi dago

«Aldaketak naturari mesede egingo lioke, baina monopolio batetik bestera pasatzearekin, ezberdintasun sozialek jarraituko dute»

egindako gauza asko ezingo ditugula desegin, hortaz, erabil ditzagun gure alde, ahal dugun erabilera onena emanez. Arma ere ez dira onak, baina arma batek bere kabuz ez du ezer egiten: erabilera da txarra.

Aurrez aipatu duzu mugimendua historikoa dela.

Hala da, bai. Ez da egon gai honen bueltan horrenbeste indar erakutsi duen mobilizaziorik. Alderdi politiko eta eragile ekologista ugari daude aspalditik lanean. Gurea ez da lehenengoa. Baina orain arte inork ez du lortu horrenbeste gazte batzea.

Badirudi gazteek hartu dutela klima aldaketa gelditzeko agente-makila. Gazteak ere mobilizatzeko gai direla eta interesa badagoela erakusten du horrek?

Bai, guztiz. Gazteok honaino iritsi garela esan dugu, aitzakiak amaitu direla, denbora bukatzen ari zaigula. Greta Thunberg-ek lehen egunetik oso garbi hitz egin du. Bere diskurtso bakoitza aurrekoa baino indartsuagoa izan da. Eta ez badigute kasurik egiten, gero eta gehiago borrokatuko dugu.

Zerbait egin lezakeen azken belaunaldia garaia egia da? Horrela sentitzen duzu?

Gu ez bagara, pasa da dagoeneko. Guk pentsatu nahi dugu gu garaia azkenak, badagoela zerbait egiteko aukera oraindik.

Europar oihartzun handia izan du mugimenduak. Parlamentura ere iritsi da. Zu ere bertan izan zara. Zer nolako esperientzia izan da?

Nazioartean sarea osatu dugu, bai. Martxoaren 15aren aurretik gonbidatu gintuzten Estrasburgora. 18 herrialdetako 60 pertsona izan ginen parlamentuan, klima aldaketari buruz hizketan. Denbora gutxian entzunak izatea lortu genuen, bai. Baina politikariek guk entzun nahi genuena esan izan digute, baina gero ez dute ezer egin. Horregatik jarraitzen dugu ostiraleroko mobilizazioekin: ez dugulako entzunak bakarrik izan nahi.

Diozunaren arabera, politikarien diskurtsoak ez daitoz bat, hartzen dituzten erabaki politikoekin.

Guk ez dugu nahi inork guri eskerrak ematea, zein ondo hitz egiten dugun esatea, edo txalotzea. Erabakiak nahi ditugu.

Itxurakeria eta zurikeria daude?

Guztiz, eta triste da. Interes asko daude atzetik. Batzuk di-



rutzak irabazten ari dira, eta horiei ez zaie aldaketarik komeni. Interesa egongo da baliabideak bukatzen diren momentuan, trantsizio energetikoa egiteko. Baina monopolio batetik, beste monopolio batera pasako gara. Eta hori ere ez da irtenbide egokia izango.

Zer diozu Greenwashing delakoaz?

Kapitalismo berdea hazten ari da, aldaketaren aldeko mugimenduak haztearekin batera. Azken batean, ekologismoaren ize-nean egindako kapitalismoa da, ez da irtenbide bat. Adibidez, energia konpainia batek erregai fosilak erabiltzetik energia berri-erregaietara egin dezake saltoa, duen monopolioa mantenduz. Aldaketak naturari mesede egingo lioke, baina monopolio batetik bestera pasatzearekin, ezberdintasun sozialek jarraituko dute.

Politikak eta ekonomiak ez dute laguntzen, baina hiritarrok ze ardura dugu?

Noski, dena ez dago politikarien esku. Egunerokoan kontutan izan behar dugu zenbat ur kontsumitzen dugun, argiak itzaltzen ote ditugun, oinez edo kotxez joaten garenean, zenbat haragi jaten dugun... Erabaki txikiak har ditzakegu. Gure jarrerak aldatzen ez baditugu, ezin dugu hipokresiaz jokatu eta gainerakoei aldatzeko eskatu.

Zer egin genezake?

Aurrez aipatutako gure esku dauden ohitura txikiak aldatu, adibidez. Inguruko jendea kontzientziatzen ere lan izugarria egin genezake: eskoletan, enpresetan, familian, lagunartean... Eta kalean aldaketak exijitzea.

Are entzunagoak izateko, mundu mailako greba bat sustatu zenuten. Zergatik?

Egun berean munduko leku askotako kaleak hartzeak indar handia du. Irailaren 20an hasi ziren lehen mobilizazioak, eta leku askotan 27an egin zuten azkena. Egun horietan milioika pertsona atera dira kalera etorkizuna babes dezaten eskatuz. Ni 20an Granadan nengoen, eta 27rako Gironako mobilizazioetara joan nintzen, hango lagunekin.

Jarraipen zabala izan zuten mobilizazioek, mundu osoan zehar. Gustura ikusitakoarekin?

Ez nuen espero horrenbeste jende, egia esan. Gironan, goizero txokolatada antolatu genuen, eta jendetza ikusita manifestazio inprobisatua egin genuen, trafikoa handienera kale batzuk moztetako. 500 bat pertsona izan ginen. Arratsalderako bai, jende gehiago espero genuen, eta 5.000 pertsona inguru batu ginen. Gironan, behintzat, gai honen bueltan horrenbeste jende batzea ez da sekula ikusi. Hurrengo egunean, munduko beste leku batzuetako zifrak begiratzuz, bistakoa da jende asko irten zela kalera: 6-7 milioi artean. Martxoaren 15eko lehen mobilizazio handian

«Martxoaren 15eko lehen mobilizazio handian 1,5 milioi pertsona zenbatu izana, saltoa sekulakoa izan da»

1,5 milioi pertsona zenbatu zirela kontutan izanda, saltoa sekulakoa izan da. Datuek erakusten dute gazteria, eta gizartea oro har, aldaketarako gogoz dagoela. Era berean, komunikabideetan ez du hainbesteko oihartzunik izan.

Zifrek erakusten dute jendartean, behintzat, interesa badagoela, ezta?

300 erakundetik gora izan ziren grebarako dei egin zutenak. Fridays for Future horietako bat da, baina talde ekologista txikiago eta handiagoak ere atzean ziren. Eta kalean ikusi da gazteez gain, irakasleak, gurasoak, etab. ere atera direla.

Bada, hortaz, esperantzarako arrazoirik?

[Isilunea] Beno, nik uste dut baietz. Zaila da, eta izango da. Baina ez bagara saiatzen, ez dugu jakingo. Ez dugu ezer galtzeko, etorkizun hobe baten alde egiten ari gara. Eta ilusio horrek bizirik mantentzen gaitu.

Hasierako isilune horrekin duda egin duzu?

Tira, datuak hor daude. Zientzialarien ikerketak eta datu bibliografiko guztiak ikusita, jakitun gara egoera txarrean gaudela. Katastrofeak gero eta gehiago gertatzen dira. Baina egia da egoera honekin amaitzeko aukera badaukagula.



Estrasburgo, Europako Parlamentuan,
18 lurraldeko 60 aktibista. ANDER CONGIL

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

euskal sagardoa
Sida natural del País Vasco
DENOMINACIÓN DE ORIGEN

GORENAK
EUSKAL SAGARDOTEGIA
SIDRA DEL PAÍS VASCO



BIHOZKADA ZURE AURREAN

Villabonako taldeak bere lehen lan luzea kaleratu berri du eta herriko Gurea antzokian aurkeztuko du abenduaren 13an; Pottoka estudioetan grabatu dute Fredi Pelaezekin, eta gustura daude emaitzarekin. Orain entzuleek dute hitza: Hau da direna, nahi duten musika egiten dutelako.

Jon Miranda

BiHozkada taldeak pop-rock-a egiten du euskaraz. Kantu itsaskorak dira eta Iñaki Lizaso taldekidearen ahotsak doinu melodikoa eman die abestiei, nahiz eta tarteak ageri diren bestelako eragin gogorragoak ere taldearen musikan: riff rock and rolleroak, distortsioak eta stoner ukituak, adibidez. Entzuten duten musikaren emaitza da egiten dutena. Lizasok bezala, Tomas Lizardik joera du metal-a entzuteko; Nahikari Callejak, berriz, rock heavy-a maite du gehien eta Txomin Urdanpilletak punk-arako joera du; AEBko rock klasikoaren zalea da, aldiz, Unai Aldasoro.

Aniztasun hori islatu nahi izan dute *Zure aurrean* auto-ekoiztutako lehenengo diskoan. «Kantuak elkarren artean oso ezberdinak dira. Kantu bat lasaia da eta hurrena berriz indartsua», dio Aldasorok. Eta horren bila jo dutela berre-

tsi du Callejak: «Beti berdina egingo bagenu aspertuko ginатеke gu eta entzulea ere bai. Aniztasunaren bila jardun dugu, belarria ezagutzen ez duzun talde batera egina ez baduzu, kosta egiten da kantu bat bestetik bereiztea».

Lizasok, Lizardik eta Callejak abiatu zuten BiHozkada 2015. urte amaieran. Lizasorena izan zen lehen bultzada: «Haur Hezkuntzan irakasle naiz eta nire ikasleekin aritzeko gitarra jotzen ikasi nahi nuen. Aurretik ezagutzen nuen Tomas eta beregana jo nuen eskolak jasotzera. Lehen akordeak ikastearekin batera hasi nintzen lehen kantuak konposatzen eta berehala proposatu nien taldea osatzea». La-sarte-Oriako Oihan Agirretxe batu zitzaizen baterian eta taldearen lehen aldiari ekin zioten. Kontzertuak ematearekin batera, 2016ko apirilean Bonberenea estudioan, Mikel Zelaiak grabatu, nahastu eta editatu zuen sei kantuz osatutako maketa.

Agirretxek taldea utzi eta Urdanpilletak hartu zuen bere



lekukoa. Ia aldi berean sartu zen Aldasoro taldean: «Ni berez legazpiarra naiz eta lanagatik inguru honetara etorri nintzenean Tomas ezagutu nuen. Berak gonbidatu ninduen BiHozkadan aritzera eta baiezkoa esan nion, musika egin gabe ezin baitut egon».

Asko disfrutatzen duela dio Aldasorok eta elkarrekin egon eta entseatzeko erabiltzen dituzten orduak ondo aprobetxatzen dituztela aipatu du, «daukagun tarte hori dena emateko darabilgu». Sacem lantegiaren ondoko lokala erabiltzen dute entseatzeko eta taldekideek egokitu dute tokia beraien beharretara, baldintza egoki eta duinetan aritzeko. Berdina eskatzen diete kontzertuen antolatzaileri ere: «Ez dugu edozein modutara aritu nahi eta emanaldiak lotzerako orduan kontuan hartzen dugu zein aretotan eta nola jo». Taldea sortu zutenetik 30-40 kontzertu inguru eman dituzte, antzoki, taberna eta bestelako oholtzetan. Lekuaren arabera formatu bat edo bestea aukeratzen dute. «Taberna edo lokal txikietan ez dute batriaren soinu nahi izaten eta modu akustikoan jotzen dugu, kaxoi flamenkoa hartuta», esan du Callejak.

Agirretxek taldea utzi ondoren eta kide berriak gerturatzearekin batera emanaldietan geldialdia egin eta kantu berriak prestatzekari ekin zioten BiHozkadako kideek. Emaiza *Zure aurrean* da.

Zortzi kantuz osatutako lana

Egunotan kaleratu duten diskoa kasualitate baten emaitza dela esan du Lizasok: «Alex Tello aktoreak Usurbilgo Sute-gi aretan eman behar zuen emanaldi baterako deitu ginen. Bukaeran, 2016an grabatutako maketa oparitu genion eta bereziki kantu bat gustatu zitzaion, *Pirata lagun* izenekoa. Gerora, *Galerak* diskoan sartu zuen Tellok, stripuz 2007an hil zitzaion Oihana Alkorta lagunari eskainitako diskoan. Abestia Axular Arizmendirekin grabatu genuen Mutrikuko AME estudioetan. Hor sartu zitzaigun arra eta gure buruari galdetu genion: Eta disko bat grabatuko bagenu?».

Apustuari heldu eta diskoa grabatzen jardun dute azken hilabeteetan. Fredi Pelaezek Beasainen duen Potttoka estudioetan aritu dira lanean eta haren aholkularitza izan dute uneoro. «Asko ikasi dugu eta taldeari soinu bat eman dio Fredik. Barrutik ez gara jabetzen gure akatsez eta funtzionatzen ez duten kontuez ohartarazi gaitu», aipatu du Lizasok. «Bere gomendioei jarraituz pare bat kantuan ahotza leuntzeko ahalegin bat ere nabari da. Pozik nago emaitzarekin eta ikusiko dugu zuzenekoetan horri eusten diodan». Taldekide guztiek banaka grabatu dituzte instrumentuak eta saiatu dira grabazio egunetan denak Beasaingo estudioetan elkarrekin egoten. «Horrek eta az-

ken orduko ukituek atzeratu egin du diskoaren kalera-
tzea», aitortu du Aldasorok.

Kantuen sormen prozesuaz galdetuta entsegu lokalera
lehen ideia Lizasok ekarri ohi duela aipatu dute gainerako-
ek. Callejak azaldu du: «Iñaki etortzen da abesti bat buruan
duela eta askotan, zuzenean, ezezkoa esaten diogu. Asko-
tan ni izaten naiz abestia atzera botatzen duena. Baina ba-
dira okasioak non iruditzen zaigun kantuak baduela zer-
bait berezia, aukerak ikusten dizkiogu eta bakoitzak bere
erara irudikatzen du. Hor hasten da sormen prozesua: oi-
narrian Iñakik dakarrenari norberak bere instrumentua-
rekin bere partea erantzen dion». Hasierako txinparta zerk
sortzen duen esaten ez daki Lizasok. «Hitzak izan daitezke
abiapuntua, edo melodia bat, edo oinarri instrumental
bat. Kantuaren arabera da. Akorde sekuentzia batekin
etortzen naiz entsegu lokalera, nik eskeletoa dakarkit eta
instrumentuekin giharrak osatzen ditugu. *Zure aurrean*
kantua, adibidez, lokalean Txomin eta biak geundela hasi
zen, *riff* batekin eta bateria base batekin. Modu askotara
egiten dugu: kantua sortu daiteke arratsalde batean, eta
beste batean, aldiz, ibilbide luzeagoa du. Horrelakoetan,
aukerak ikusten dizkiogu piezari eta lantzen hasten gara».

Auto-ekoiztutako diskoa da eta aleak esku artean izango
dituzte azaroaren 12tik aurrera. Hala ere dagoeneko en-

tzun daitezke diskoan bildutako zortzi kantuak Band-
Camp plataforman, eta atzotik Spotify eta YouTube. «Fi-
sikoki ale batzuk atera ditugu, ehunka ateratzek ez baitu
zentsurik. Gaur egun saldu talde handiak baino ez dute
saltzen. Zuzenekoetan salduko ditugu aleak eta gure sare
sozialetan gurekin harremanetan jarrita interesa duenak
eskuratu ahal izango du. Durangoko disko eta liburu azo-
kan ere Musika Zuzenean-ek izango duen standean saldu-
ko ditugu ale batzuk», esan du Lizasok.

Hemendik aurrera zuzenekoetan, disko berriko kan-
tuak, aurreko maketan bildutakoak eta grabatu gabe gera-
tu direnak emango dituzte. *Zure aurrean* diskoaren aur-
kezpena, abenduaren 13an egingo dute Villabonako Gurea
antzokian, 20:00etatik aurrera. Lehenagotik, ordea, kon-
tzentu akustikoak eskainiko dituzte Tolosako 3 Tabernan
azaroaren 17an eta Orexan azaroaren 29an. Urtarriletik au-
rrera, besteak beste, Añorgako gaztetxean eta Donostiako
Dokan lotu dituzte emanaldiak. BiHozkadaren entsegu lo-
kalaren ondo-ondoan du berea Habi taldeak eta haiekin
batera kontzertuak emateko ideia darabilte buruan.
«Orain entzuleen esku geratzen da gure lana, entzun deza-
tela diskoa pare bat aldiz, eta gorrotatu edo maitatu deza-
tela. Gero erabakiko dute kontzertuetara etorri edo ez», ai-
patu du Callejak.



IÑAKI LIZASO

AHOTSA ETA GITARRA



NAHIKARI CALLEJA

BAXUA ETA KORUAK



TOMAS LIZARDI

GITARRA ETA KORUAK



UNAI ALDASORO

BIOLINA ETA TEKLATUA



TXOMIN URDANPILLETA

BATERIA





Diskaren azala, Argentinatik Villabonara

Janire Callejak prestatu ditu *Zure aurrean* diskorako irudiak. «Olioeko marrazki bat da azalekoa eta taldekideak ageri gara bertan. Diskoaren barrualdeko marrazkian, berriz, sokak bagina bezala irudikatu gaitu, izan ere soka asko dituen taldea da gurea: launa dituzte baxuak eta biolinak eta seina, berriz, gitarrak».

Arte Ederrak ikasi ditu Janire Callejak eta Buenos Airesen bizi da gaur egun. Handik bidali ditu diskorako irudiak. «Sinpleak eta inongo pretentsiorik gabeak dira, baina izugarri gustatzen zaigu nola geratu den».

ZURE AURREAN

ZURE AURREAN

«Ikaragarri gustatzen zaigun kantua delako jarri dugu lehenengo tokian. Iraupenez luzea da, ez da irratian erraz jarriko luketena. Hasiera instrumental luzea du. Aldaketa askoko abestia da, *riff* polit eta itsaskorrekin. 'Ni naiz naizena, nahi dudana izan nahi dudalako' esaten du errepikak eta esaldi horrek laburtzen du kantuan esan nahi duguna».

ZUGABE

«Entzuten duenak letra interpreta dezan gustatzen zaigu. Izan daiteke bikotekide, lagun edo herri bat gabe irudikatzea geure burua. Bakarrik edo bestearen beharrik gabe, aske izan zaitezkeela esaten dugu hor. Kantu *kañerogoa* da, nolabait esateko, stonerragoa. Erritmo mantsoa du, baina doinu zikinak ditu, biolinak ukitu polita ematen dio. Indarra dauka».

ZALDIZURI

«Mezu polita duen abestia da. Txominek egiten duen erritmikak zaldi baten trosta gogorarazten du. Mantsoa da, balada bat eta biolina eta gitarrekin egiten diren bakarkako pasarteak, melodian barneratzen laguntzen zaituzte. Iaz istripuz hil zen lagun bati eskainitako da, ukitu gintuen gertakaria izan zen eta hotzikaria sor dezakeela iruditzen zaigu. Berezia da abestia».

HIGUINA

«Bakoitzak nahi duena interpreta dezala: higuina, nazka, amorrua... Bat-batean sortutako kantu horietako bat. Goitik beherakoa atera zitzaigun, denok hartu genion kantuari neurria eta azkar sortu genuen».

KAIUKO

«Beste abesti askotan metaforak baldin badaude, kantu honetan

zuzenean esaten dira esan beharrekoak. Saiatzen gara beti errimatzen eta metrika zaintzen eta disko honetan hortik urruntzeko ahalegintxoak egin dugu. Kantu honetan, ordea, koplak batzuk jarri ditugu eta garbi adierazi nahi izan dugu tematika. Immigrazioa eta gaur egungo egoera lotsagarriaz hitz egin dugu. Egoera berak behartzen gaitu horretaz idaztera».

HOSTOEN MALKOAK

«Taldearen aurreko garaiko kantu bat da, disko berrirako berreskuratu nahi izan duguna. Poperoena da, oso itsaskorra eta melodikoa da. Soinu garbia eta doinu alaia da. Hitzak ere arinagoak dira. Aurreko garaiko kantua izan arren, berrikuntzak sartu ditugu kantuan eta taldearen heldutasuna nabari zaio abestiari».

PIRALTA LAGUNII

«Kantu hau lagun bati eskainiz idatzi genuen. Aurreko aldiko kantua da eta 2016ko maketa horretan grabatu genuen. Bigarrenez Ondarroan grabatu genuen. Aurreko bertsiotik letra zertxobait moldatu genuen».

ITSASGORA

«Kaotikoa da kantu hau erritmo aldetik. Pot-pourri moduko bat da. CDan entzuten da, baina ez dago grabatuta besteak bezala, modu zuzenagoan baizik. Klaketa ahaztuta, gauza formal horiek alboratuta grabatu genuen. Erritmo eta melodia aldaketa asko dauzka, bertso zati bat ere badu tartean. Itsasoa bezalakoa da: itsas behea eta itsas gorak daude, marea biziak eta geldoak ditu. Grabatzen gehien kostatu zitzaigun kantua da. Egoera politikoaren inguruko kantua da, ez Kaiuko pieza bezain zuzena, baina buelta bat emanda, zeharka ere gauza asko esan daitezkeela uste dugu. Sarrianandien olerki bat ere jaso nahi izan dugu kantuan».

Final-laurdenak

Gipuzkoako


Bertsolari Txapelketa
2019

Azaroak

2 17:00
Azkoitia. Baztarrxo Antzokia

Beñat Gaztelumendi Arandia
Mikel Artola Izagirre
Ane Labaka Mayo
Ander Lizarralde Jimeno
Maialen Akizu Bidegain
Ane Zuazubiskar Iñarra
Aurkezlea: Ion Zaldúa Brit





Aspaldiko laguna

25

Dena itzultzen omen da. Hara, kanpai-galtzak berriz ere modan; hara, barizela bigarren aldiz pasatzea tokatu behar; eta, hara, non topatu duzun aspaldikoz X. Igual, supermerkatuan. Eskola-garai-ko kidea da, berriz topatzeak

ilusioa egiten dutenetakoa, inoiz lagun min izandakoa ere bai. Hogei urte elkar ikusi gabe, erraz esaten da.

Azken urteetako informazioa aletzen hasiko zarete jarraian. Informazio faktikotik hasiko zarete, non bizi izan zareten denbora honetan guztian, non egiten duzuen lan; izandako bikotekideak-eta zeharka aipatuko dituzue; seme-alabarik ba ote duzuen eta ea zenbateraino koskortuak; zer motatako lanbidea duzuen, nagusiki diru-iturri dena, edo nahikoa izerdituak ote zareten afizioa ofizio bihurtzeko; ea oraindik behi-esnea edaten duzuen edo erori ote zareten esne begetalen hatzaparretan. Finean axal-solasa, ez espero bezain axalekoa. Arian-arian bestearen bizi-estiloa zertan den ulertzeko adina informazioa bilduko duzue, esandakoetatik, eta batez ere, isilduetatik ondorioztatuak.

Gero, igual, egoerak hala eskatzen duelako, erabakiko duzue kafe baten bueltan jarraitzea hizketan, oroitzapenei heltzeko: eskolako maisu-maistra ipurterreez, txangoetako kantuez, kalean jostatzen emandako arratsaldez... arituko zarete. Bizitza zein polita zen smartphone-ik

gabeko garaietan, jolasean zebiltzan umeei amak leihotik hots egiten zien garaiak, zein politak! Eta *estudiante* garaiak aitatuko dituzue, panazko arropak, pezetetan pagatutako Hertzainaken kaseteak non gelditu ote ziren; parranda egiten zenuen tabernak oraindik irekita ote dauden... Une tragikoren bat tartetan, falta diren klasekideengatik doluminak. Politikaz txintik ez, zer gerta ere; omisioak berak erakusten du non gelditu ziren garaiak aldarriak.

Betiere, sepia koloreko hizketan jardungo zarete; mugimendurik gabeko gauzez, paretetako argazkiez bezala. Garai batean egia zirenez oraindik egia balira bezala arituko zarete, nahiz badakizuen, badakizuen, orain fikzio direla. Narrazio horri leku inposibleetara tira egin nahian, etxeratze orduek iritsi da. Mua-mua asko poztu nau ikusteak,

hurrengora arte X. Begiak dir-dir.

Kotxean, etxera bueltan zoazela ohartuko zara momentu batez bizi izandako ameskeriaz. Mugikorraren dardarizoa patrikan, olo-esne brikak dinbili-danbala maletategian; Spotify-ek oihuka diotsu *Premium* jaitsi ezean matraka ematen jarraituko duela. Euria ari du. Konturatzen zara orain egia dena mugimenduan da-goela.

Eta nola aldatzen diren gauzak, kamarada...



AINHOA MENDILUZE
ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Agenda

OSTIRALA AZAROAK 1

AMEZKETA

GAZTAINA JATEA

Gaztaina jatea Zazpi-iturri elkartearen.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

09:30. Berastegiko txoko kuttunak ezagutuz: Uli mendira irteera herrikoia plazatik abiatuta.

19:00. *Raketistak* dokumentala, Raketistak kultur-kirol elkartearen eskutik, erabilera anitzeko gelan.

TOLOSA

ABESBATZA LEHIAKETA

11:00. Abesbatza Lehiaketan musika profanoaren modalitatean parte hartuko duten ahots taldeen emanaldia. Musika profanoa Era Vocal Group (Letonia), Gema Sangkakala (Indonesia), Glier College Vocal Group (Ukraina), Art'n Voices (Polonia), The Korrigan Consort (Erresuma Batua) eta Swara Vocal Ensemble (Belgika). Leidorren.

16:00. Abesbatza Lehiaketan polifonia eta folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Polifonia JCA National Youth Choir (Japonia), Coro Gaos (Espainia), Pa Saulei (Letonia), Bel Canto Vilnius (Lituania) eta Batavia Madrigal Singers (Indonesia). Leidorren.

19:30. Abesbatza Lehiaketan folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Folklore JCA National Youth Choir (Japonia), Coro Gaos (Espainia), Pa Saulei (Letonia), Bel Canto Vilnius (Lituania) eta Batavia Madrigal Singers (Indonesia). Leidorren.

KONTZERTUAK

19:30. Eriz bakarlaria, Orbela tabernan.

22:30. M.C.D. taldea, Bonberenean.

BELDURRAREN ETXEA

Ostegunetik igandera. Santu Guztien egunaren bueltan eta Halloween ospakizuna aprobetxatuz, Tolosako Topaguneak Beldurraren Etxea gazteentzako egitasmoa antolatu du ostegunetik igandera bitartean kultur etxean. 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta bertan parte hartzeko aurrez izena eman behar da.



GAU BELTZAREN JARRAIPENA

Atzokoan herri askotan Gau Beltza edo Arimen Gaua ospatu bazuten ere, ohiturak berreskuratuz, belztasunak bere ajea utziko du asteburu osoan zehar. Adibidez, Tolosako Topaguneak Beldurraren Etxea izango du zabalik igandea bitarte. **JOSU OZAITA**

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

22:00. Olatz Salvadorren kantaldia izango da.

LARUNBATA AZAROAK 2

AMASA

SAN MARTINAK

20:30. Mondeju afaria egingo da Amasako Uxo- Toki elkartearen.

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

17:30. Azken eguzkilorea antzezlan haurrentzat, Patata Tropikala taldearen eskutik.

22:00. *Bakean dagoenari bakean utzi* antzezlan helduentzat Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen eskutik, eskolako gimnasioan.

TOLOSA

ABESBATZA LEHIAKETA

11:00. Abesbatza Lehiaketan erlijio-musikaren modalitatean parte hartuko duten ahots taldeen emanaldia. Musika sakratua Era Vocal Group (Letonia), Gema Sangkakala (Indonesia), Glier College Vocal

Group (Ukraina), Art'n Voices (Polonia), The Korrigan Consort (Erresuma Batua) eta Swara Vocal Ensemble (Belgika). Santa Klara elizan.

16:00. 51. Abesbatza Lehiaketan polifonia eta folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Polifonia Aurum (Espainia), 441Hz. (Polonia), Folklore Aurum (Espainia) eta 441 Hz. (Polonia). Leidorren.

19:30. Kontzertu lirikoa Juan Laboreria abeslariaren eta German Ormazabal piano jotzailearen eskutik. Topic-en.

OREXA

KULTUR HAMABOSTALDIA

16:00. Zine emanaldia haurrentzat. *Small Foot*.

Ondoren. Txokolatada eta puzgarriak.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Trikitilariak. Iruñe Elizagoien eta Jone Uria

Ondoren. DJ Bull.

IGANDEA AZAROAK 3

BERASTEGI

KULTUR ASTEA

10:00. Goizean zehar azoka eta tartean



ABESBATZEN HIRIBURU, MENDE ERDIIAREN LANGA GAINDITUTA

Iazkoa urte borobila izan bazen ere, aurtengoa ere horrela izatea espero dute Tolosako Abesbatza Lehiaketako antolatzaileek. 51. edizioan, hamar ganbera abesbatza ariko dira lehiari eta baita sei ahots talde ere. Urtero bezala Leidorreko aulki berdeak beteko dira ahots zerutiarrez gozatzeko. Leidorren ez ezik Topic-en eta Santa Klara elizan izango da musikaz gozatzeko parada. **MIKEL IRAOLA**

herriko eta herritarren produktuak eskuragai. Aurren, Bizi baratzeak postua izango da Jakoba Errekondoren zuzeneko aholkularitzarekin. Horretaz gain: gazta lehiaketa; sagar tarta lehiaketa; postu lehiaketa; ahari, ardi, bildots lehiaketa; animalia ezberdinen erakusketa eta rallyko argazki onenen erakusketa.

13:30. Sari banaketa.

18:00. Talo jatea eta gazta eta sagar tarta dastaketa, ardoak eta sagardoak lagunduta. Tartean, Sara Caminos eta Beñat Iturriotzen musika emanaldia.

TOLOSA

ABESBATZA LEHIAKETA

11:30. Lehiaketaren amaiera saioa eta sari banaketa, Leidorren. *Agur Jaunak* abesten amaituko da emanaldia.

Jarraian. Abesbatza bazkaria, Ferialekuan.

19:00. Swara Vocal Ensembleren eskutik ahots kontzertua. San Frantzisko elizan.

ASTELEHENA AZAROAK 4

AMEZKETA

KULTUR ASTEA

18:30. *Euskal Herri soinu tresnen erakusketa* eta hauen inguruko hitzaldia

egingo dira Beasaingo Ostadar Dantza Taldearen eskutik. 18:30ean ate irekiera erakusketa ikusteko (soinu tresna ezberdinak probatzeko aukera egongo da). 19:30ean hitzaldia.

ERAKUSKETAK

LASSOMBRAS BAJOLAS ESTRELLAS

GKo galeria (Tolosa). Omgra Ríaq Miuq, Pol Ventura argazkilariarekin batera.

BURATTINIEN MUNDU MIRESGARRIA

Topic (Tolosa). Italiar txotxongiloen erakusketa. Erakusketa 70 lanez osatuta dago, eta eskularrien teknikaz gain beste teknika batzuk erabiltzen dituzten txotxongiloak ere badaude.

KOLLAJE ERAKUSKETA

Jubilatu-enea taberna (Alegia). Kurage Kolektiboa. *Hobeto tximeletak hoan, hienak bihotzean baino.*

JOSE IGNACIO AGORRETA

Aranburu jauregia (Tolosa). Betidanik autodidakta, bere obra irudi garaikide baten inguruan mugitu da.

ZINEMA

‘DIA DE LLUVIA EN NUEVA YORK’

Igandea (20:00 eta 22:00) eta astelehena (20:30). Astelehena, ikuslearen eguna. Jatorrizko bertsioa. Gaztelaniazko azpidatziak.

Leidor antzokia, Tolosa.



‘TOY STORY 4’

Igandea (17:00). Haurrentzako emanaldia. **Gurea aretoa, Amasa-Villabona.**



‘LA TRINCHERA INFINITA’

Larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (22:00) eta astelehena (21:00). Jon Garaño zuzendaria egongo da igandeko proiektzioan. **Gurea aretoa, Amasa-Villabona.**



Demoniyuak



AITOR MENDILUZE

*Erorien hilerri
demoniyu hortan
demoniyozko akelarre bat
ospatu da bertan
demoniyuak hemen
demoniyuak han
demoniyo denak ez
gorputzaren bueltan
demoniyuek oraindik sasoi
demoniyuetan.*



Doinua

Albaiteruan sala

Bidaiatzearen zentzugabetasunaz

Gain-baloratuta dago norberaren esperientzia. «Norbere begiekin ikusi» edota «esperientzia ahaztezin bat bizitzea» bizitzaren helburu nagusi bihurtu da. Bizitzan behin behintzat bisitatu beharreko tokiak.

Baina, zergatik eta zertarako bizi behar ditugu gauza guztiak? Ze paranoia sartu zaigu? Hain garrantzitsua al da Afrikako tribu hori zure begiekin ikustea? 8.000ko bat zure oin azpian izatea? Tibeteko tenpluko parafernalia ikustea?

Momentu atsegin bat bizitzeaz gain, zein ekarpen egin dizu? Pertsona hobe al zara harrezkero? Metamorfosia? Oporretatik (ustez) aldatuta etorri den lagunaren gehiengo, lehenago zen hilabeteren buruan. Ados: han zer pentsatua emango zion gosea ikusteak, bakardadea bizitzeak, gutxi-rekin asko egin daitekeela ikusteak... baina, hona etorri eta hilabeterako lehen bezalakoak dira, gehienak.



**IMANOL ARTOLA
ARRETXE 'FELIX'**
FILOSOFOA ETA
ANTZETZLEA

Askok diote: «Baina, ikusi egin behar da han...». Zertarako ikusi nahi duzu, hemen ez baduzu gero aplikatzen? Badakizula esateko? Uste al duzu, han bizi izan duzuna bizitzeko modu bakarra bertara joatea dela? Uste al duzu ni hemen ezin naizela ondo-rio horietara heldu?

Eta, zein eragin du besteengan? Besteek zu han ikusteak? Zer erreproduzitzen duzu leku (ustez) exotiko horretara joanda?

Beraiek nola bizi diren ikusi nahi duzu, baina beraiek ikusi nahi al zaituzte han? Zu zoaz hara, beraiek ez datoz hona.

Munduko aniztasuna gustatzen zaigu. Baina, mendebaldeko presentziak aniztasuna ezabatzea dakar. Gure logika ari gara beraiei sar-tzen.

Zergatik ez diegu gauzei berez izaten uzten? Guk ikusi beharrik gabe. Ikusi gabeko, baina sumatzen den aniztasuna, ez al da ikusitakoa bezain polita, edo politagoa?

Uste al duzu, han bizi izan duzuna bizitzeko modu bakarra bertara joatea dela? Uste al duzu ni hemen ezin naizela ondorio horietara heldu?

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



Erresistentzia bizitza da

29

Duela urtebete eskas Leido-
rren ikusi nuen *Comandante*
Arian dokumentala. Emaku-
me kurduen bo-
rrokaren kontakizuna da:
ISISen aurkako borroka,
patriarkatuaren aurka-
koa eta herri kurduaren
aldeko aldarria, denak
batean. Fusilak sorbal-
dan, zapiak buruan eta
bizia maite dutenen begi-
radak. Dokumentalak
bete zuen bere helburua,
borrokaren gordina era-
kutsi zigun eta borrokan ari zirenen
indarra odolean sartu. Baina, Leido-
rreko aretotzarrean, berogailua tope-
ra, hogeita hamar lagun gerrako iru-
diei begira; aspaldian ez dakit hain
hipokrita sentitu ote naizen. «Hau
gaur da, Maddi. Hau orain da» erre-
pikatzen nuen neure baitan, baina
pelikula bat bailitzan ari ginen ikus-
ten. Bukatutakoan «ze gogorra...»
esan elkarri eta etxera, mantapera.
Kurduen aurkako ofentsiba berri ho-
netan, berriro berritu zait orduan
sentitutako hipokresia.



**MADDI SARASOLA
EIZMENDI**
BETAURREKO
BERDEEKIN

Kurdistanek barrenak mugitzen
dizkigu, txanponaren bi aldeak bil-
tzen dituelako. Euskal herritar uka-
tu, hizkuntza jazartu eta
emakume* zapaldu ga-
ren heinean, minean eta
borrokan bat egiten
dugu. Baina, petrolio-
aren menpeko, gizarte
arrazista eta klasista ho-
netako konplize garen
heinean lotsatzen gara.
Irudipena dut erraz
adierazten diegula el-
kartasuna herri zapal-
duei, baina bestaldera begiratzen du-
gula kolonizatzaileekiko dugun kon-
plizitatearen aurrean. Ez garela gai
benetako burujabetza prozesuak iru-
dikatzeko, autogestio errealeak plan-
teatzeko eta lehengaiekiko dugun
menpekotasunek sortzen dituzten
injustiziak iraultzeko. Gudan dago
kolonoa: oraintxe zapaldu, oraintxe
zapaltzaile.

Baina, honetan guztian bada zer-
bait are eta gehiago kezkatzen naue-
na. Zapaltzaile garenaz ez onartu nahi
izateaz gain, zapaldu garela ere ahaz-

ten ari ote zaigunaren errezeloa. Kata-
luniari elkartasunez, urriaren 19an,
Donostian egin zen manifestazioaren
amaierako irakurketan esan zen, au-
rrez ezagutu gabeko kriminalizazio
prozesua ari dela bizitzen Katalunia.
Hori esan zen 42.000 lagun aurre-
an. Kurdistan, Katalunia, Palestina,
euren lurraldeak aldarrikatzen dituz-
ten hainbeste komunitate. Ze elkarta-
sun adierazi behar diegu gure herria-
ren memoria hain merke saltzen ba-
dugu? Gurea defendatu eta
aldarrikatzea da elkartasunik handie-
na. Kurduak dioten moduan: «Berx-
wedan Jiyane». Erresistentzia bizitza
da.

**Gurea defendatu eta
aldarrikatzea da
elkartasunik handiena.
Kurduak dioten
moduan: «Berxwedan
Jiyane». Erresistentzia
bizitza da.**

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro nahasia izango dugu gaurkoan. Hego haizea ibiliko zaigu baina goietan sartuko den aire hotzarekin eze-gonkortasuna areagotu egingo zaigu. Arratsaldean euri zaparradak ugaritu egingo zaizkigu, ekaitz kutsukoak gai-

nera. Tenperaturak nahiko epelak izango dira, 20 graduren ingurukoak maximoak.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Larunbat goizean oraindik ere giro nahiko lasaia izango dugu, ho-

dei eta ostartee-kin eta euri pixka batekin. Eguerditik aurrera eze-gonkortasuna handitu egingo da eta iluntzean fronte baten etorrerarekin euri dezente botako du. Haizeak zakar joko du eta tenperatura maximoak 16-18 gradutan ibiliko dira.

IGANDEA

Igandean, goizean zaparrada mardulak botako ditu etengabe, litro dezente utziz. Ondoren, atertzen hasiko da eta egunaren amaieran ostarteren bat zabalduko da. Haizeak mendebaldetik zakar joko du eta tenperatura maximoek behera egingo dute, 15 gradutan errendituz.

ASTELEHENA

Astelehenean, oraindik ere giro nahasiarekin jarraituko dugu, mendebaldeko haizearekin. Goiz partean lasaia-igo ibiliko da baina arratsaldean zaparradak itzuliko dira. Tenperaturak antzeko balioetan edo zertxobait gorago ibiliko dira, haizeak indar pixka bat galduko duelako.

OSTIRALA
1



IGANDEA
3



LARUNBATA
2



ASTELEHENA
4



IRAGARKI LABURRAK



ALOKAGAI

Baserria. Elduainen etxebizitza, ustategia edo biak. Interesa dutenek, deitu telefono zenbaki honetara: 635 757381 (Iñaki).

• 943 65 56 95, ataria@ataria.eus
edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde-
12:30. Elkarrizketa (Haizea Barcenilla).
17:30. Gaurkoan Tolosalde-
21:30. Gaurkoan Tolosalde-
22:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (Azpeitia).
22:30. Platopic.
23:30. Gaurkoan Tolosalde-.

FARMAZIAK



AZAROAK 1, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

AZAROAK 2, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

AZAROAK 3, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Amaroz auzunea, 9.
Telefonoa: 943 67 5118.

AZAROAK 4, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Lurdes Azpiroz Galarza
Amaroz auzunea, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. **Pasahitza** Asteak utzitako onena.
12:00. **Entzuteko jaiok** Musika tartea.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. **Kantazgora** Tolosaldeko musikarien proposamenekin osatutako musika saioa.

LARUNBATA

09:00. Euskal Herriko V. jardunaldi feministak, Durangotik zuzenean.
10:00. Trikiti musika.
12:00. **Mestibull** DJ Bullekin munduko musikak.
18:00. **Entzuteko jaiok** Musika tartea.
21:00. **Mailu ta akuilu** Musika saioa.

IGANDEA

09:00. Euskal Herriko V. jardunaldi feministak, Durangotik zuzenean.
10:00. Asteak utzitako onena.
14:00. **Hari Naizela** Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.
16:00. **Entzuteko jaiok** Musika tartea.
18:00. **Kantazgora** Tolosaldeko musikarien proposamenekin osatutako musika saioa.
20:00. **Entzuteko jaiok** Musika tartea.
21:00. **Mestibull** DJ Bullekin munduko musikak.

ASTELEHENA

09:00. **Pasahitza** Eguneko berriak, agenda, asteburuari begirada, *Postalak* bidaiarien tartea (gaurkoan, Iker Iriartekin), Patxadaz egunkiko elkarrizketak.
12:00. **Entzuteko jaiok** Musika tartea.
16:00. **Zebrabidea** Arroza sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. **Mailu ta akuilu** Musika saioa.

107.6 fm
www.ataria.eus

JAN TOLOSALDEA BIDEO LABURREN LEHIAKETA

INFORMAZIO GUZTIA:
tolomendi.eus eta ataria.eus

ZER KOLORE
DU BERTAKOAK?



PARTE HARTZEKO EPEA:
urriaren 15etik azaroaren 10era

SARIAK:

DBH 1-2: KIDE GUZTIENTZAT ZUMARDIAKO URTEKO BAZKIDETZA
ETA IKASTARO BATEAN MATRIKULA.

DBH 3-4: KIDE GUZTIENTZAT ZUMARDIAKO URTEKO BAZKIDETZA
ETA BI IKASTAROTAN MATRIKULA.

BATXILERRA 1-2: KIDE GUZTIENTZAT BIZI BIZIKIK ESKAINITAKO
ABENTURAZ BETETAKO ASTEBURU PASA.

PUBLIKOAREN SARIA: BERTAKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO
OTARRA ETA EKOIZLEAREN USTIATEGIRA BISITA.



Zu zeu zara zure influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria hilean 290 eurotik *

Bi pertsona mota daude: zu eta gainontzekoak. Pertsonalitate propioa duzulako eta ez zaudelako azken joeren menpe. Zure sena bakarrik jarraitzen duzulako. Eta senak esaten dizu Audi A4 Avant ez dela beste auto bat. Diseinu elegantea du eta kirol jenio bizia, eta horren adierazle dira LED motako aurreko argiak, MMI Navigation plus sistema edo ECO marka duten Mild hybrid motor aurrerratuak. Aproposak dira pauso bat aurrera emateko eta bide propioa irekitzeko, zu bezala, inor eta ezer jarraitu gabe.



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8

► Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 KW (136 CV) S tronic-ra egokitutako Audi Financial Services-en eskaintza, 36 hilabetera eta guztira 45.000 kilometrotarako Renting kontratuarekin. 6.645 euroko sarrera bat ordaindu behar da, Volkswagen Renting SA-ren bidez. Kuotak eta sarrerak ez dute BEZik. Gurpil zorroen aldaketarik gabe. Eskaintzak Red Oficial Audi-ren mantenu eta hibatze zerbitzu guztiak barnebiltzen ditu, baita garantia (matxuren konponketa), frankiziarik gabeko arrisku oroko aseguru eta hitzartutako epealdiko bidaia asistentzia. Beste bertsioetarako edota ekipamendurako Audi kontzesionarioan galdetu. Eskaintzaren azken eguna 2019ko urriaren 31. Audi Financial Services marka Volkswagen Renting SA-k merkaturatzen du. Irudiko autoa ez da eskaintzako bera.